...eta Kitto!
2017-VII-21
1.025 zkia.




EUKI
ASEGURUAK



AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!

AUTO ASEGURUA
MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA, KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA, ATOIAK...

AUTO
ASEGURU
ESKAINTZA

Informazio gehiago: **eukiseguros.com**

# osasun gida

## Dentistak

**arat**
Hortz-Klinika
*ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA*
*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura*
**Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...**
Clínicas dentales UniverSalud
TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1.esk. Telf: 943 20 18 51



Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik. Etorri eta egin irribarre berriz ere.
**bista eder**
clínica dental hortz klinika
Deitu | 943 70 00 82 bista eder, 19

**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
MAITANE G. IÑIGUEZ
Zerbitzu guztiak klinika berberan
San Agustín, 4 behea ezk.
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia
Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
**B. IZAGIRRE**
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL**
clínica dental
**Irribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
*Bidebarrieta, 7 - 1. esk.* *943-702896*

9 urte zurekin Eibarren
25 prestazio doan zuretzako
**VITALDENT**
*Konpromisoa*
San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**
*Ainara Iriondo Ansola*
*GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA*
Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**
* *Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala*
* *Min-Unitatea*
* *Inkontinentzia urinarioak*
* *Kirol medikuntza*
* *Ama izateko prestakuntza*

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad
**MEDIKUNTZA** ESTETIKOA
**KIRURGIA** ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com
FISIOTERAPIA ZENTRUA

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**
**DOKTOREA**
– Bularren azterketa
– Minbiziaren azterketa prebentiboa
– Zitologia
– Baginako eta sabelaldeko ekografia
– Mamografiak
– Bularretako ekografia
– Nerabeentzako arreta
– Menopausiadunentzako arreta
– Dentsitometriak
– Haurdunaldiaren kontrola
– Kontrazepzioa

**T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57**

## Logopedak

**AHOTS-LAN**
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA
**Isasi, 17 - 1. esk.**
**943 202691**
**ahotslan@gmail.com**
**Diagnostikoa eta tratamendua**

| | |
|---|---|
| **Degluzio atipikoa** | **Arreta arazoak** |
| Disfonia | Berba arazoak |
| Ikaste-arazoak | Dislexia |

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**: J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**
Blue Popelina Talks

**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Eskuzabaltasun eta parte-hartzeari esker –

Badira 26 edizio Arrate Kultur Elkarteak uztaileko lehen asteko gauak irudi eta soinuz janzten dituela. Lehen Diaporama Aste moduan ezaguna zena **Ikusentzunezko Astea** izendatu dugu azken urteotan. Eta pentsatu dugu badela garaia, guzti hori posible egiten duen lanaren borondatezko izaera goraipatzearekin batera, modu horretan bidelagun izan ohi ditugunei jendaurreko eskertza egiteko.

Lehenengo eta behin, azken urteotan hainbeste lagundu digun **Xabierri**, San Andres elizako klaustroa -Eibarrek duen toki eder bezain kuttuna- gure eskura jartzearren, eta munduko erraztasun guztiak ematearren. Berarekin batera, **Juan Aldai** dugu konplize eta ezinbesteko bidelagun, pantaila lagatzeaz gain, beti ondoan, berak eta bere ezagutza teknikoak babestuta sentiarazten gaituelako. **Kultu tabernakoei**, sostengu eta inplikazioagatik. Elkarteko kideekin batera, egun horietan, txandaren bat hartuta zein unean bertan laguntzera animatuta, azpiegitura antolatzen eskuz esku **gurekin ibiltzen zareten lagun guztiei**. Eta, amaitzeko, urteak joan urteak etorri, gure proposamenak ezagutzera hurbiltzen diren eibartarrei.

Halakoetan ari denak badaki zein gaitza den jendea erakartzea eta gu horretan zortea daukagu, beti dugulako norekin konpartitu udako gau horietako tartetxoa. Horrek indarra eta ilusioa ematen digu ahaleginean jarraitzeko. Mila esker, bene-benetan.

Arrate Kultur Elkartea

## Erredakzioaren oharra

**Esku artean duzuen alea ikasturteko azkena da. Hurrengokoa** Arrateak aurretik, **irailaren 6an**, eguaztenean, kaleratuko dugu.

Ordura arte, ondo izan.

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LOTSIA, GITXIEN DEIXANAK, GEIXEN ETA ANDIÑAK EMOTEN DITTUANA BESTIERI**.- Kaitano Kareagak lotsari buruz egin zuen definizioa.
**LOTSORRA**.- Lotsatia. *"Len zan lotsorra, eta estaziñoko jefia ein dabenetik, or dabill mundua jan biarrian".*

## astean esanak

"Kaleko erabileraren datuek kezka sortu badute ere, ez dago harridurarik, zantzuak baitzeuden. Kaleko erabilera hori fenomeno konplexua da eta gogoetak egitean hori kontuan izan behar da. Emaitzetatik harago, diskurtso sinplistak okerrak dira: `ezagutza igo eta erabilera jaitsi´ eta horrelakoak. Sinplekeria hutsa dira, eta euskaldunon gain uzten dute erantzukizuna. Gainera, euskaldunok gutxiengoa gara Euskal Herrian, %28 azken inkestan. Erabilera ez da txikia, beraz: euskarari guk eusten diogu"

(Urko Aierbe, Euskal Herrian Euskaraz)

"EITBn ez dago publikotasun senik, Europan ez bezala, baizik eta inguruko irrati komertzialekin lehiatzea. Eusko Legebiltzarrak pisu handiegia dauka albistegietan eta administrazio kontseiluan. Independenteagoak dira hedabide publikoak Europan. Aurkezleak nortasun eta esperientzia handiko kazetariak izaten dira; hemen gazteak jartzen dituzte eta horrek eragina du markan. Hemen albisteen protagonistak politikariak dira, baita kultur albisteetan ere. Ez dago kultur eragilerik Teleberri-an. Gurean politika kazetaritzaren gainetik dago. ETBko irratiek hogei albiste labur dituzte; Alemaniakoek hiruzpalau erreportaje"

(Maria Glez. Gorosarri, ikertzailea)

"Psikoanalisitik helduta, alderdi bakoitzak impasse irrazionala bizi du. EAJ psikotikoa litzateke: argi dago ezingo duela segitu neoliberala izaten eta ongizate estatua aurrera eramaten. Zartadura hori handituz joango den neurrian, gero eta psikotikoago. EH Bildu, bestalde, fetitxista: bere hutsune politiko guztien aurrean fetitxe bat ateratzen du, eta esaten du dena konponduko duela sozialismoarekin. Baina horren atzean ez dago garbi egituratutako politikarik. Elkarrekin Podemos? Neurotikoa da. Batetik, legea onartzen du, demokrazia, estatua; eta bestetik, nahi luke izan legearen eta estatuaren alternatiba bat"

(Joseba Gabilondo, saio-egilea)



JON MIKEL MUJIKA

## Icebergak

Historiako icebergik handiena sortu omen da Antartidan azken egun hauetan. 5.800 kilometro koadroko azalera duen plaka bat askatu da Larse C. izeneko izotz plataformatik.
Izozmendiari giputx askok MCD-ren abesti batean ezagutu genuen autopistaren izena jarriko omen diote, A68.
Zientzialariek hilabeteak zeramatzaten antartidako izotzetan sortutako arrakala erraldoiari begira, azkenean izotz puska kontinentetik guztiz askatu den arte.
Orain icebergaren bilakaera aztertzen ari dira, adituek diotenez litekeena da puska txikiagoetan zatitzea. Antartida ez da pusketak galtzekotan dagoen bakarra. Espainiar estatuan ere arrakalak azkar ari dira hedatzen. Kataluniako erreferendumaren hotsak geroz eta ozenago entzuten dira. Eta gurean, askatasun nahiak kupo eta aurrekontuekin asetu guran dabiltzan honetan, independentziarako aldarriak bizirik dirau.
Nik ez diot euskal herriari iceberg baten bizitza opa. Ez nuke gure herria itsaso zabalean bakarrik, isolaturik eta noraezean ikusi nahi. Ez nuke jasango gure hizkuntza, kultura eta historia itsasoan urtzen ikustea. Baina geratzen zaiguna ez da askoz hobea. Gure agintari batzuk hartzen ari diren erabakiek geroz eta gehiago lotzen gaituzte espainiar estatura. Eta ez pentsa lurralde oparo baten kostaldera itsatsirik gaudenik, hondoratzen ari den harri koskor bati kateatuta gauzkate.

# Debegesak Euskal Turismo Sarixen epaimahaixan hartuko dau parte

**Debegesa Garapen Agentziak Euskal Turismo Sarixen epaimahaixan parte hartuko dau, Eskualdietako Turismo Erakundiak ordezkatuta.** Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saillaren ekimenez, 3 kategorixatan banatuko dira sarixak: barrikuntzari bultzadia, jarduera-sektoriari lotutako lehiakortasuna eta ibilbide profesionala. Sarixetara aurkeztutako hautagaixak aztertzeko Kalifikaziño Epaimahai bat eratuko da, Turismo eta Merkataritzako sailburuordiak, Turismo eta Ostalaritzako zuzendarixak, Basquetourreko zuzendarixak eta Turismo eta Merkataritzako Lurralde Buleguetako hiru arduradunak osatua. Horrez gain, Debegesa garapen agentziarekin batera, Arabako Foru Aldundiko ordezkari bat, Bilbao Turismoko ordezkari bat eta SEA Arabako enpresarixuak be egongo dira epaimahaixan, Euskadiko Turismo Enpresen Elkarteak ordezkatzen. Jarduera ekonomikoren bat zuzendu edo kudeatzen dabenak, udalak, erakunde profesionalak, korporatibuak edo gremixuak osatutakuak, publikuak zein pribatuak izango dabe sarixa eskuratzeko aukeria, beti be Euskadiko turismuarekin loturia badake. 2015ian Mutrikuko Arbe Hotelak jaso eban Berrikuntzari Bultzada Turismo Sarixa.




**asteko 50 datua**

***urte beteko dittu Unibersidade Laboralak datorren urtian, 1968ko oktubrian zabaldu eben eta. Lehelengo urtian Espaiñiako 45 probintziako 244 ikasle hartu zittuan; horretako 36 ziran gipuzkoarrak. Hezkuntza Esparruak 1.100 ikasle, horretatik 900 interno, hartzeko tokixa zekan.***

# Hondakiñen kudeaketiarekin arduratuta

**Mankomunidadiak hondakiñen inguruan egitten daben kudeaketia dala eta, EH Bilduko ordezkarixak** arduratuta daguazela diñue: *"Urte amaierarako kontenedorien sistema aldatuko da eta, horren inguruan herrittarrak sensibilizatzeko, gida bat etaratzia baiño ez jako bururatu. Sistemaren aldaketiak hori baiño lanketa askoz serixuagua eta integralagua bihar dabela pentsatzen dogu. Eta, gaiñera, edukiontziak modu egokixan erabiltziagaittik bonifikaziño barrixak kontuan hartzia planteatzen dogu. Sistema aldaketia zetorrela jakin genduanetik, sensibilizaziñorako proposamenak egitten ari gara Hondakiñen Batzordian, Mankomunidadiak kontuan hartzeko eta, horrekin batera, kontenedoriak ondo erabiltziagaittik bonifikaziño gehixago aplikatzia. Baiña, itxuria, Mankomunidadiak ez dauka prisa haundirik ekintzak ahalik eta bizkorren martxan jartzeko".* Kontenedore grisak ipintzeko Mankomunidadiak 800.000 euro inbertiduko dittu eta, horregaittik, herrittarrak ondo erabiltzia lortzeko gida bat baiño zeozer gehixago bihar dala erizten detse.





*Elektrotxarangak girotu eban auzua barixakuan.* **Maialen Belaustegi**

## Jaixak bete eban asteburua San Kristobalen

Asteburu osuan ospatu dittue jaixak San Kristobal auzuan eta parte hartzera animau diran guztiak ederto ibilli ziran, auzoko jai batzordekuak antolatutako jarduera ezberdineri esker. Barixaku arratsaldian txupinazua bota eta jarraixan, Okresta elektrotxarangaren erritmora egin eban eztanda gidarixen babesliaren omenezko jaixak. Gabian heavy musikiak bete eban auzua eta zapatu eta domekan, barriz, goizetik gabera bittartian ondo pasatzeko aukerarik ez zan faltan izan. Jaixen amaieran egindako errifaren zozketan, bestalde, sarixa 1122 zenbakixari egokitu jakon (lehen erreserba 2177 eta bigarren erreserba 2422).

## Lambretta motorrak martxa betian ibilli ziran asteburuan



**Aurreko zapatuan atzera be Lambretta motorren soiñua martxa betian entzuteko** aukeria euki genduan herrixan, Eibarko Lambretta Klubak antolatuta egindako Lambretta Eibar XIV. Konzentraziñuaren harira. Urteroko moduan, Eibar eta inguruan bizi diran motorzalieri kanpotik etorri ziran beste batzuk batu jakuezen eta, bakotxak bere gustora zaindu eta moldatutako Lambrettak Untzagan erakusten egon eta gero, danak errepidera etara zittuen, kalejiran ibilli eta jarraixan San Kristobal auzora igotzeko. Argazki-bilduma ikusteko sartu etakitto.eus web orrixan eta juan MEDIATEKARA.

# autuan



### ANDRA MARI JAIXAK

**Abuztuaren 15ian Andra Mari jaixak ospatuko dittue Azittaiñen eta, urteroko moduan, horretarako musika, sukaldaritza eta kirolarekin lotutako hainbat jarduera antolatuko dittue auzokuak.**

### ODOLA EMOTEKO SAIUA

**Datorren asteko eguenian odol-emoitaliendako odola emoteko saiua egingo dabe anbulatorixuan, 18:30xetan.**

### AMAÑAKO JAIXETAKO ZENBAKI SARITUA

**Uztaillaren 9xan, ONCEko zenbakixarekin batera, Amañako Jaixen Batzordiak zozketatzen zeban Veneziarako bidaia 0936 zenbakixa daukanari egokittu jako.**

---

# ANTONIO SALAS LIZAUR

*2017ko uztailaren 15ean hil zen*



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.






# Antonio Salas Lizaur

*"**Antonio:** ez zaitez ahaztu astelehenero zure argia gugan ezartzen liburuek ezkutatzen dituzten harrigarrizko misterioak aurkitu ditzagun, zurekin izandako une bikainekin berriz gozatzeko. Asko maite zaitugu, Antonio"*






*ZURE ASTELEHENETAKO IRAKURKETA TALDEKOEK*




## Valoriza-ko bihargiñak baldintzak hobetzeko borrokan segitzen dabe

**LAB sindikatuak idatziz jakiñarazi dabenez, badira hillebete batzuk Eibarren etxez-etxeko asistentziara** emoten daben Valoriza SL-ko bihargiñak Valoriza enpresarekin negoziatzen hasi zirala, euren lan baldintzak hobetzeko asmuarekin. Beste ezer baiño lehen, baiña, hauteskunde sindikalak egin bihar izan zittuen eta holan aukeratu eben LABen ordezkarixa. Bihargiñak euren egoeriaren barri emoteko idatzi dabenez, *"denpora honetan hamaika batzar egin dittugu zerbitzua kudeatzen daben enpresarekin zein Eibarko udalarekin. Gure egoeria dala eta kezkatuta azaldu ziran oposiziñoko taldiekin nahiz Eibarko alkatiarekin be bildu gara eta gure lan baldintza kaxkarrak dirala eta gure kezka azaldu detsegu daneri. Horrekin batera, hainbat proposamen egin dittugu berehalako hobekuntzak lortzeko eta lan-baldintzetan etorkizunian emon leikiazen hobekuntzen oiñarrixak ezartzeko. Valorizako eta udalak berak kontratau dittuan bihargiñen artian, soldatetan zein baldintzetan, daguazen aldiak be salatu dittugu. Ulertzeko modukua da bihar bera bi eskalaren arabera pagatzia? LABek eta Valorizako bihargiñok bihar berdiñari soldata bera zor jakola diñogu. Hamen ikusi leike zerbitzuak kanpokuen esku lagatziak (azpikontratak) lan baldintzak zelan okertzen dittuan".*

Hillebetiak eztabaidan pasau eta gero, bihargin bakotxaren soldatia nabarmen haunditzia lortu dabe: lanordu gordiña 6'57 eurotan pagatzen zetsen eta gaur egun, barriz, 13'10 eurotan. Laster bihargiñen ordezkarixak eta LABeko liberauak Valorizako zuzendaritzarekin billeria egingo dabe, soldata igoeriak nominetan eragiten daben gai teknikuen inguruan berba egitteko. Diñuenez, zuzendaritzak hitz emon dau hobekuntza sozio-laboralak jasoko dittuan enpresa-ituna proposatuko detsela eta zuzendaritzak billerara proposamen zintzuarekin juatia espero dabe: *"Guk pentsatzen dogu egitten dogun biharrak gizartian garrantzi haundixa dakala. Zerbitzu publiko bat emoten dogu (bai, enpresa pribatu baten bittartez) premiñia daken herritarrendako. Bihargin guztiak andrak gara, kasualidadia ete da? Zergaittik izaten dira andrazkuak betetzen dittugun lanpostuak prekarixuenak? Gizarte matxista batian bizi garala agerixan lagatzen dau honek eta, bihargin zein andra moduan, diskriminaziño bikoitza jasan bihar dogu. Hamaika oztopori aurre egin bihar izan detsagu. Lan baldintzak hobetzeko eta kalidadezko zerbitzu publiko batzuren alde ari gara borrokan eta segiduko dogu".*



## Sua piztu zan astelehenian hutsik eguan taillar batian

**Astelehen arratsaldian sua piztu zan Otaola Hiribidian, lehen Norica karabina taillarra** egon zan tokixan. Lantegixa Elgetara eruan ebenetik hutsik dago eraikiña eta sua zelan piztu zan ez dabe azaldu, baiña suhiltzailliak azkar emetau eben. Halanda be, sua menpian hartu arte urduri ibilli ziran inguruko lantokixetan eta, ke asko eta oso illuna urtetzen zala eta, toxikua izango ete zan kezkatu ziran asko. Zorionez, suhiltzailliak azkar ibilli ziran eta suak kalte materixalak baiño ez zittuan eragin.



## Izen-emotia zabalik Jabetze Eskolako ikastaruetarako

**Udaleko Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak prest daka Jabetze Eskolako ikastaro barrixen udazkenerako eskintza.** Emongo dittuen ikastaruak honek dira: "Autoaren oinarrizko ezaguera eta ingurunearen konponketa txikiak", "Bizitzarako psikologia praktikoa", "Antzerki-joko ikastaroa", "Erotismoa eta autoezagutza" eta "Autodefentsa Feminista". Ikastaro bakotxaren inguruko informaziño guztia Andretxearen web orrixan ipiñi dabe eskuragarri. Izena emoteko epia zabalik dago eta iraillaren 29ra arte egongo da matrikulia betetzeko aukeria, Pegoran eta Andretxean (ahal bada, hobe Andretxean egittia). Zalantzak argitzeko andretxea@gmail.com helbidera idatzi leike edo, bestela, 943 70 08 28 telefono zenbakira deittu.

# Opor-usaiñian biaje-agentzietatik egindako biajia



**Biajiak erreserbatzeko ohitturak aldatu egin dira: azken aukerak baztertu eta lehenbailehen gorde bihar da tokixa egun. Kruzeruak jarri dira modan eta baitta Europako hiriburuak be. Herrialde arabiarrak atzian geratu dira eta horrek penintsulako eta irletako preziuak igoarazi dittu, batez be europarrak etortzen diralako. Hori bai, bi aste baiño oporraldi luziaguak oso gitxi dira.**

Badakigu, jakin, berandu gabiltzala abuzturako biajiak billatzen bagabiltza, honezkero eskintza hoberenak ez dauzkagulako eskura izango. Baiña gehixenok hamendik gitxira oporretan murgilduko garanez, biajetxua egin dogu aste honetan Eibarko sei biaje-agentzietatik eta Matienako Bagoazera be jo dogu. Euren funzionamenduak izan diran aldaketa nagusixak kontau deskuez eta izango da, ba, zertaz aprobetxatu.

Halcón Bidaietako (J. Etxeberria, 7) **Oihana Aranbarrik** dioskunez, *"azken aldiko destino izarra Mosku eta San Petersburgo izan leike, batez be familientzat. Bestela, Europako zirkuituak saltzen dira oso ondo: Praga-Viena-Budapest paketia eta Alemania"*. Jendiaren gustueri erreparatzian, *"gaztiak Benidorm, Salou eta Gandiako apartamentuak" aukeratzen* jarraitzen dabela diosku, *"beti be ahal dan merkien"*. Famelixak apartahotelaren alde egitten dabela diño eta *"animaziñua eta piszinia bertan izatia asko baloratzen"* dabela esaten dau. Kanarietara oindiokan jendia juaten dan arren, *"9 egunetarako Sardiniako (Cerdeña) biajiak asko saltzen doguz"*. Bikotiak autua hartu eta euren erara moldatzia nahi izaten dabe. Eta ezkonbarrixak *"New York eta Riviera Mayarekin jarraitzen badabe be, Maldivas igotzen doia"*. Lehelengo ibilli eta azken egunetan hondartza izaten da euren martxia. Batzuk zein bestiak *"hamendik dana lotuta eruatia nahi izaten dabe: bisaua eta tramite guztiak eginda"*. Sasoi honetan urriko zubixa lotzen dihardu jendiak eta *"irailletik aurrera Imsersokuak hasiko dira"*. Abuzturako nahiko berandu bada be, *"urrira arte hegaldi charterra dakagu Kanaria Handira, Anadaluziara ez dago hain eroso; Madeirara bai, hegazkin zuzena dago Bilbotik"* diñosku Oihanak. Bataz beste, *"lau izarretako hotela da gehixen hartzen dana; umiekin apartahotela eta gaztiak apartamentuaren alde egitten badabe be"*.

Barceló Bidaietako (J. Etxeberria, 11) **Irene Marfullek** dioskunez, *"izan da jendia Peñiscolagaittik galdetu deskuna eta azkenian Jamaikara juan dana, estatuan prezio gero eta garestixaguak daguazelako; Saloura juatia be ez dago merke"*. Eta irletara zer esanik ez: *"Ixa prezio berian Mauriziora eta Jamaikara juan zeinke"*. Berak diñuanez, *"Mallorcan edo penintsulan kanpoko turismua gero eta zabalduago dago; Errusiatik bertatik jende asko etortzen da, dirua gastatzen dabe eta, tokixak betetziaz gaiñera, preziuak igotzia be badakar horrek"*. Europako zirkuituak dabiltza saltzen ondo, *"izan Iparraldera, fiorduak-eta ikustera, izan Erdialdian"*. Fiorduetatik aparte, aurten charter biajiak izan dittue Poloniara eta Kroaziara be. Sasoi honetarako oporretarako tokixa hartzeko *"lehelengo erreserbak otsaillian eta martxuan egitten dittu jendiak"*, Marfullek diñuanez. *"Apirilletik ekaiñera jaitsiera igarri genduan, oin pare bat aste dala barriro igotzen hasi bada be"*. Sasoi honetan, jakiña, *"urrirako eta abendurako irteeretako ofertak dake honezkero"*. Abuztuan biajatzeko azken eskaintzengaittik galdetuta, honakua diosku: *"Praga-Viena-Budapest zirkuitua edo Kroaziara bestalde, hegaldixa Bilbotik zuzenian eginda. Juan zan astian Karibera izan genduan"*. Jendiaren gustuari dagokixonez, *"normalian hotela aukeratzen dabe, pensiño osuan edo erdi pensiñuan, batez be atsedena billatzen dabelako. Paketiak be asko baloratzen dira... eta hegaldi zuzena izatia"*.





*Sardinia gero eta gehixago eskatzen dau jendiak. Cagliari da bertako hiriburua.*

Nautalia Bidaietako (San Agustin, 5) Sheila Irustak be estatuan preziuak asko igo dirala diosku, *"inglesak-eta honuntza datozelako gero eta gehixago"*. Destinuen arluan, *"desblokeuarekin, Kuban gora egin"* dabela diño, eta gero betikuak: *"Kostaldia, irlak, Karibea eta Punta Cana, Sardiniara hegazkiñak zuzenian dakaguz Gasteiztik udan, hegaldi charterra Mauriciora eta Jamaikara, hórrek dira indar gehixen dakenak"*. Oingo naziñoarteko egoeria dala-eta, jakiña, Afrika iparraldera asko jaitsi dira biajiak: *"Egiptora ezin da juan, eta Tunezera eta Turkiara izugarri jaitsi da asuntua"*. Jendiaren gustuari errepasua egiñez, *"famelixak kostara edo irletara juaten dira, kruzeruak eta zirkuituak ez dira euretako; gaztien inguruan denetarik ikusi zeinke, daken presupuestuaren arabera moldatzen dira; ezkon-barrixendako Japon ipiñi da modan, baitta Vietnam be, safarixak be eskatzen deskuez (fetxa batzuetan behintzat ahal da), Estatu Batuak konbinaziño asko eskintzen dittue, New York eta Riviera klasikua asko biajatu gabekuak aukeratzen dabe, Asiako biajiak merkiaguak dira... halakuetan, dana dala, eguraldixa kontuan izan bihar da (hurakanak eta euritiak urtero dira)"*. Jendiak orokorrian eguraldi ona billatzen dabelako, *"pensiño osua eta hondartzarekin batera; eta famelixak baitta bertan animaziñua izatia be"*. Tokixa hartzeko orduan, *"kosta billatzen dabenak azkenerako lagatzia gertatu baleike be, hegazkiña erabilli biharko dabena lehenago etorriko jaku"*. Hasi dira udazken eta negurako ofertak eskintzen, batez be Europarako: *"Lau egunetan hiriburuak bisitatzeko sasoi aproposa da. Pragara hegaldi charterra dakagu, esaterako"*, diño Sheilak. Eta oin, abuzturako eskuartian zer daken galdetuta: *"Madeirara astebeterako, hegazkiña, hotela eta guztiarekin, 600 eurotan; Mediterraneoko kruzeruak be modan dagoz eta, prezio berian, pensiño osua eta animaziñua eskintzen detsue; badagoz biaje merkiak Maltara, Azoreetara... Karibera juateko 8-10 ordu bihar dira, hori da txarrena"*.

Premier Bidaietako (San Agustin, 2-4) Idoia Altunak dioskunez, *"arabe usaiña daken biajiak eskatu be ez dira egitten, baiña aspaldiko tendentzia da, ez aurtengua. Eta terrorismuaren eragiña Parisen be nabarittu da, asko sufridu dau. Bestalde, gora egin dabe Mediterranuak eta Sardiniak, hor erreserba gehixago nabarittu da famelixetan eta lagunartian. Eragiña daka maioristak hegaldi zuzena eskintziak be, esaterako Mauriciora juateko Madrildik. Kanarietara asko igo da preziua, Balearretara beti garestixa izan dan bittartian; baiña, klima dala-eta, europarrak Kanariak aukeratu dittu eta hórrek bestiondako plaza gitxi egotia ekarri dau"*. Jendiak zelako gustuak dakan? *"Famelixak penintsula eta irlak aukeratuko dabe, kruzeruekin batera; hónek gero eta prestatuago dagoz umiendako, eta badira nabierak umiak duan juaten lagatzen dabenak"*. Bikotiak panorama zabalagua aukeratzen dabe: *"Europako hiriburuak, Estatu Batuak, Hegoamerika... Modak izaten dira eta asko funzionatzen dabe ahoz-aho euren artian. New York eta Punta Cana jaisten daguazen moduan, badago joeria EEBB-etara jotzeko. Maldivas eta Mauricio be indartsu dagoz. Eta Bali eta Thailandia aukeratzen dabenak oso pozik bueltatzen dira, merkiagua izatiaz gain, exotismua be eurekin daramatelako"*. Altunak diosku jendiak atsedena billatzen dabela, *"batez be, nobixuen kasuan. Eta gure ohiko bezeruen artian asko dira Europako hiriburuak osatzen dihardutenak"*. Erosittako biajietan *"bataz beste, penintsulakuetan 7-10 egun egitten dabe, Karibian astebete osua, Sardinian eta Grezian 10 egun, bestietan 15 bat"*. Tokixa hartzerakuan, *"gero eta azkarrago dabil jendia; esaterako, Gabonetan Kanarietara juan nahi dabena oin berandu dabil"*. Oin abuzturako azken eskintza eskatuta, gauza gitxi daguala esaten desku: *"Hiriburu bat bisitatzia nahi izan ezkero, akaso. Badago Sardiniarako hegaldi zuzena Gasteiztik"*. Euren bezeruak hotela eta apartahotela erabiltzen dabe batez be.

Ecuador Bidaietako (Untzaga, 11) Laura Lopez de Gereñuk jendiak *"eguzkixa eta hondartza billatzen dabela"* esanez hartzen desku. Kanariak *"tenperaturagaittik"* eta Baleareak goian daguazela diño, *"baiña urtietako kontua da hori"*. Esaten deskunez, *"Europako zirkuituak be oso ondo funzionatzen dabe, baitta kulturalak be. Eta ezin da ahaztu kruzeruak modan jarri dirala: Mediterraneora eta Europako iparraldera, fiordoetara eta Baltiko-*



*Munduak aukera asko eskintzen dittu biajatzeko. Biaje-agentziak aproposenak prestatzen dittue.*

*ra".* Halako biajietan dabillen jendiaren gustuak ez dirala asko aldatu diño eta *"ezkonbarrixak, esaterako, azken 4-5 egunetan beti amaitzen dabe hondartzan".* Tokixa hartzeko momentuan hor bai izan dirala aldaketak: *"Abuzturako Aste Santu inguruan gitxienez. Lehen zenbat eta geruago azken aukerak aprobetxatzeko zain egoten bazan jendia, oin askoz lehenago mugitzen dira. Tarifak askoz dinamikuaguak dira eta hegaldixak agintzen dabe".* Oin bertan zer hartu geinke? *"Ofertan neguko programaziñorako dakaguz batez be. Baiña badakagu Viena-Praga-Budapest paketia eta Iparraldeko kruzerua: hori bai, oingo, uztaillerako dira, ez abuzturako".* Hotelen alde egitten dau jendiak, apartamentuen alde? *"Jendiak bost izarrekuak nahi dittu, eurak garbitzeko preziuan eta halakorik ez dago. Ume txikixak dittuan famelixa batek, esaterako, apartahotelaren alde egingo dau".* Presupuestuaren arabera aukeratu biharko dabe, azkenian.

Eroski Bidaietako (Errebal, 6) Maite Agirianok *"azken aldixan hónek Wall Street-eko burtsak moduan funzionatzen dau, kafe bat hartzera urtetzen zara eta preziiua aldatu da. Hegaldixetako preziuak oso dinamikuak dira, lau ordu ez dabe irauten"* esanez hartzen desku. Goraka egin daben biajieri erreparatuta, *"Sardinia eta Korsika, eta baitta Madeira be. Azken honek hondartzarik ez daka, baiña irla bolkaniko zoragarrixa da, eta preziuan be merke ateratzeko aukeria dago".* Jendiaren gustuengatik galdetuta honakua diño: *"Gaztiak ibilbide luzien aldekuak dira, Thailandia edo Vietnam kasurako, zerbitzu askeagua erabiltzeko, euren erara eta gida barik. Famelixak Mediterranua eta irlak aukeratuko dittue eta, ume barik badagoz, zirkuituak Europa aldian".* Tokixa hartzeko zelan mugitzen diran? *"Abuzturako famelixak aurresalmenta aukeratuko dabe urtarrillian edo otsaillian, umiak ahal dan neurrixan duan juateko. Gaiñera, jendiak pentsatzen badau iraillian eta urrian Kanariak merkiago egongo dirala oker dabil, atzerritarrak han jarraitzen dabelako; Errusiako eta Alemaniako jubilau asko dabil eta eurak dira nagusi hondartzetan. Zirkuituetan pista libre dago, negoziua askotan urtebete lehenago mugitzen dalako. Urriko zubixa be ez dago oin une gorenian eta preziua asko aldatzen da kostaldera juan edo ez: askoz merkiago da Zaragoza Kantabria baiño".* Jendiak oin opor motzaguak billatzen dabela uste dau Maitek: *"Hiru asteko oporrik apenas daguan, 15 egun baiño gitxiagokuak dira orokorrian. Eta zubi motzetan jendia Milanera, Parisera edo Londresera juaten da".* Apartahotelaren alde egitten daben asko daguala diño: *"Famelixa bat bada umiekin nahixago izango dau sistema hori, merkiago aterako jako".*



*Hondartza eta lasaitasuna dake gustukuen bezeruak.*



Eta Matienako Bagoaz Bidaietako Ander Cimasek be bere agentziako nondiknorakuak kontatu desku: *"Aurten Costa Rica, Filipinak, Vietnam eta Kenia oso gogor dabiltza jotzen neurriz egindako biajietan, eta Karibiak produktu generikuan, Kanariar irlak baiño merkiago egon diralako agian".* Anderren agentziara jotzen dabenak *"normalian 20 eguneko biaje semilibriak egitten dittue; eta gero eta hurrunago juan, hobeto bezeruentzat. Nire ustetan, biaje motagatik izango da, batez be".* Jendiaren gustueri begiratuta, *"famelixak, gure kasuan, Mallorcako Playa de Muro aukeratu dabe, Karibiarekin batera. Izan da jendia Thailandiara juan dana. Eta, turismo nazionalian, Mojacar oso ondo saldu da".* Diruarekin apenas izaten dittue arazorik: *"Gehixenak euroarekin biajau eta bertan aldatzen dabe eta, bestela, txartela erabiltzen dabe".* Bezeruak hórrek biajiotan billatzen dabenari galdetuta, *"gero eta leku lasaixaguak, naturalezia eta, horrekin batera, masifikaziñotik alde egittia. Jendia beldurrak kentzen hasi da eta kultura ezbardiñak, gastronomia barrixak... ezagutzia be nahi izaten dau".*


*Kruzeruak modan dagoz. Ipar Europako fiordoak bisitatzekuak be ugaldu egin dira.*

## Ugaitz Muñoa (Antzinaroko Historia eta Zientzien ikaslea)

# «Arkeologo lanak egiten dihardugu Kretako **Petras kokalekuan**»

*Ugaitz Muñoa eibartarra Grezian dago egunotan, zehazki Kretako ekialdean, Sitía edo Siteía izeneko herrian indusketa lanak egiten. Ugaitzek historia ikasi zuen Gasteizen eta hortik Madrilera joan zen Antzinaroko Historia eta Zientzien masterra egitera. "Petras Excavations" kokalekuan dihardu egunotan Kreta uhartean antzina izan zen Minoiko zibilizazioaz ikerlanak egiten.*





***- Aurretik ibili zara indusketak egiten baina hauxe da estatutik kanpora zoazen lehen aldia. Nola sortu zitzaizun aukera?***

Masterreko irakasle batek harremana dauka hemengo, "Petras Excavations"eko zuzendariarekin, eta hortik irten zen beste ikaskide batzurekin batera Kretara etortzeko aukera. Gu 6 ikaskide etorri gara elkarrekin, estatuko leku desberdinetakoak. Baina gutaz gain badaude greziarrak eta amerikarrak ere.

***- Zein da zuen eginkizuna?***

Batez ere arkeologo batek lana nola egiten duen ikasteko eta gure ikasketak osatzeko gaude hemen. Gurekin batera, langileak ere badaude, soldata baten truke establezimendu honetan lan egiten dutenak. Gehienak herrikoak dira eta, nahiz eta batzutan elkar ulertzeko zailtasunak izan, ondo konpontzen gara eurekin.

***- Bost astetarako joan zara. Nola dago antolatuta lan jardunaldia?***

06:00etan jaiki eta 07:00etan heltzen gara Petrasera. Hemen bakoitzak bere lekua emanda dauka eta baita langile bat ere. Hilerri batean dihardugu. Langileak industen hasten dira eta aurkitzen doazen gauzak guk hartzen ditugu: aztertu, dokumentatu, neurriak hartu... Askotan, tokatzen zaizun lekuaren arabera ez duzu ezer aurkitzen eta apurtxo bat aspergarria izaten da. Orduan langileari laguntzen diogu, horrela lana ahalik eta azkarren egiteko. 8 ordu egoten gara, baina gure lana ez da indusketan bukatzen. Apartamentuan egunerokoa egin behar dugu, jaso ditugun datuekin, eta txostena ere prestatu behar dugu. Egonaldia ezin dugu nahi genukeen beste aprobetxatu, baina ahal dugunean hartzen dugu tarte bat buelta bat emateko.

***- Zelako objektuak aurkitu dituzue Petrasen?***

Orokorrean nahiko gauza interesgarriak aurkitu ditugu: zeramika zatiak, obsidiana zatiak, lepoko bateko bolatxo bat, plater eta edalontzi osoak... Hezur asko ere aurkitu ditugu.

***- Nolakoa da ingurua? Leku polita da Sitía?***

Bakarrik bi aste daramatzat, baina ikusi dudanez nahiko hiri lasaia da. Nahiz eta txikia izan giroa badago eta polita da. Turismoa badago, baina neurrian. Abuztuaren hasierara arte egongo naiz hemen, guztira 5 aste. Hona etorri aurretik Atenasen egun batzuk pasa genituen. Greziak bizi duen momentua dela eta, dena txarragoa eta konplikatuagoa izango zela uste genuen, baina, egia esan, hemen egonda gauzak beste modu baten ikusten dira, jendea oso abegikorra da, asko harritu nau bertakoen berotasunak.

***- Esperientzia hori bizitzera joan zaretenok ze disziplinetakoak zarete? Aurrera begira zertan nahi duzu jardutea?***

Gehienak Historia, Artearen Historia eta Arkeologia ikasi dugunak gara. Hemendik aurrera? Nire asmoa Egiptori buruzko tesia egitea da. Betidanik, txikitatik gustatu zait eta horregatik ikasi nuen Historia.

# 11 aste, 11 lagun, 11 lekutan Mintzatu!




Azkue Fundazioak "11 lekutan Mintzatu!" lehiaketa antolatu du uda honetarako, *"euskeraz berba egitea sustatzeko, gure hizkuntzak sarean duen presentzia areagotzeko, Mintzatu aplikazioaren erabilera bultzatzeko, euskeraz hitz egiten diren leku berri gehiago etiketatzeko eta toki horiei buruzko informazioa zabaltzeko"* asmoz.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Mintzatu aplikazioa euren sakelako telefonoetan instalatu beharko dute eta, aplikazioa erabilita, euskeraz mintzatzen diren lekuak sortu beharko dituzte, euren buruak toki horietan etiketatuta edo, bestela, jadanik sortuta dauden lekuetan euren buruak etiketatzeko aukera ere badute. Lehiaketak 11 aste iraungo du, uztailaren 10etik irailaren 24ra arte.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, *"edozein mota edo arlotako lekuak izan daitezke. Lehiaketak irauten duen epearen barruan leku berri gehien sortu dituen parte-hartzaileak, leku kopuru gehienetan bere burua etiketatzen duen erabiltzaileak eta hamaika leku berri etiketatzen duen parte-hartzaileak sarituko dira"*. Horretarako epea uztailaren 10ean zabaldu zuten eta irailaren 24ra artekoa izango da. Bestalde, hiru irabazleek sari bera jasoko dute: sakelako telefonoarekin argazkiak eta bideoak egiteko produktu-sorta (tripodea, objektiboak, euste-pieza…). Informazio guztia www.azkuefundazioa.eus helbidean aurkituko duzue.

Mundu osoko lekuak etiketatu ahal dira. Parte-hartzaile bakoitzak erabakiko du noiz parte hartu: lehiaketak irauten duen hamaika asteetan zehar edozein unetan har daiteke parte, eta parte-hartzaile bakoitzak nahi beste leku identifika ditzake. Ez dago mugarik!

## Atera txartela eta lortu abantailak

**Uda honetan atzerrira bidaiatzeko asmoa badaukazu, gogoan izan dirua aurrezten laguntzeko hainbat txartel daudela.** Nazioarteko txartelek eskaintzen dituzten abantaila eta deskontuak mundu osoan balia ditzakezu eta, besteak beste, ostatu hartzeko, museoak bisitatzeko edota erosketa merkeagoak egiteko aukera eskaintzen dizute. Bakoitzari buruzko informazioa laburbildu dugu hemen:

**- Gazte-txartela edo IYTC**

Gazte-txartelak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatu espainiarrean balioa izateaz gain, Europan ere balio du. Europako 38 herrialdeetan eta beste autonomia-erkidegoetan goza dezakezu eskaintzen dizkizun abantailez. Mundu osoan bidaian laguntza emateko doako asegurua du barne hartuta, aseguratutako pertsonaren ohiko etxebizitzatik 30 kilometro zenbatzen hasita. Gazte-txartela Europa-mailan homologatuta dagoen gazte-txartel bakarra da, European Youth Card Association (EYCA) delakoaren mendekoa delako.

**- Nazioarteko Ikasle-txartela edo ISIC (International Student Identity Card)**

ISIC txartela mundu osoko edozein herrialdetan erabil dezakezu. Bere abantailez gozatzeko nahikoa da baldintza bakar bat betetzea: Dedikazio osoz ikaslea izatea.

**- Nazioarteko Irakasle-txartela edo ITIC (International Teacher Identity Card)**

ITIC txartela ofizialki onartutako ikastetxe batean irakasle gisa kontratatuta daudenek atera dezakete. Berarekin, deskontuak eta zerbitzu bereziak izango dituzu 125 herrialdetan, garraio, ostatu, museo, kulturgune, antzoki eta beste hainbat lekutan.

**- Nazioarteko Go-25 txartela edo IYTC (International Youth Travel Card)**

Go-25 txartela 31 urtetik beherako gazteei zuzenduta dago. Txartel honen bidez munduko edozein tokitan milaka abantaila eta deskontu izango dituzu.

**- Nazioarteko Aterpekide-txartela**

Aterpekide-txartelak ez dizkizu deskontuak eskaintzen baina adin guztietako pertsonek nazioko zein atzerriko aterpetxeetan har dezakete ostatu.




Gazte-txartela




Aterpetxe-txartela




Nazioarte irakasle-txartela




Nazioarte ikasle-txartela




IYTC txartela

# Eibar FT-k sei gizonezko eta hiru emakumezko fitxatu ditu bere lehen taldeetarako



Oliveira

**Marko Dmitrovic atezaina, Paulo Oliveira eta Jose Angel atzelariak, Joan Jordan erdilaria eta Charles eta Ivan Alejo aurrelariak** dira momentuz Mendilibarrek hurrengo denboraldirako dituen jokalari berriak. Xuban Peña nesken lehen taldeko entrenatzaile berriak, bestalde, Nerea Gantxegi Eibarko atzelaria eta Irantzu Ibarrola eta Ane Larrañaga aurrelariak fitxatu ditu orain arte. Dmitrovic eta Alejo 2. A mailako Alcorconetik etorri dira, atezainaren kasuan Yoelen lesioa denbora luzerako izango delaeta haren tokia gordetzeko; biak ere lau denboraldirako etorri dira eta 2021era arte egongo dira Eibarren. Charles goleatzailea Malagatik dator, 33 urte ditu eta denboraldi bakarrerako fitxatu du. Jordan Espanyoletik badator ere, azken denboraldian Valladoliden jokatu du eta, erdilaria izanda, hiru gol sartu ditu; horrez gain, badaki gola sartzea zer den Ipuruan, 2015-16 denboraldian kataluniarrekin sartu zuelako. Orain dela bi denboraldi Realean jokatu zuen Jose Angel hegalekoak Oportorekin zuen kontratua apurtu du Eibarrekin 2020ra artekoa lotzeko. Eta Eibarrek orain arte egin duen fitxaketa garestienak, Paulo Oliveira erdiko atzelariak, armagirekin jokatuko ditu hurrengo lau denboraldiak. Bestalde, Fran Garagarzak beste urtebeterako luzatu du bere kontratua taldeko zuzendari tekniko moduan. Eta Lejeune atzelaria Newcastleri salduta, Eibarrek orain arte jokalari batengatik jaso duen diru-kopururik handiena lortu du: 12 milioi euro.



Jordan

Aurredenboraldiko bi partidu jokatu dituzte dagoeneko Mendilibarren mutilek: Zarautzen jokatutakoan 3-1 irabazi zioten Real Unioni (Enrich, Kike Garcia eta Nano aurrelarien golekin) eta Atxabalpen Barakaldorekin jokatutakoan 4-0 izan ziren garaile, Caparen bi golekin eta Nano eta Enrichen banarekin.


Charles

## Emakumezkoen taldea

Xuban Peñak entrenatuko duen emakumezkoen lehen taldeak abuztuaren 1ean hasiko du aurredenboraldia eta, dagoeneko, lagunarteko bost partidu ditu lotuta abuzturako: Osasunaren aurka 12an, Añorgaren aurka 16an, Osasuna eta Ardoirekin hirukoa 19an, Zarautz aurkari duela 23an eta Goierri Gorriren kontra 26an. Talde horrek Oiartzunetik datorren Ibarrola eta Mariñotik datorren Larrañaga aurrelariak fitxatu ditu, azken hiru denboralditan Añorgarekin jokatu duen Nerea Gantxegi eibartarrarekin batera.



Dmitrovic

## Hilabete mugitua

Hauteskundeak izan ondoren, handik sortutako zuzendaritza talde berriak lehengo martxari (zeudenak daude) heldu dio eta hainbat urrats eman ditu klubaren beste hainbat arlotan. Azken astean ekipazio berria aurkeztu du, HomeKit kamiseta berriari "BihotzArmagiña" goiburua gehituta, eta beltz koloreko bigarren ekipazioak ere arrakasta handia izan du. Eta Japoniatik Donosti Cup-era etorritako hiru taldeetako ehunetik gora gaztetxo Ipuruan eta Atxabalpen izan ziren instalazio bietan egindako clinic-ean.



Gantxegi



Larrañaga



Ibarrola



Bigarren ekipazioa



Alejo

"TIRO PITXOI JATETXEA" ARRATE

Abuztuan zabalik
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

## Peñen arteko IX. Torneoa ekarriko du Eskozia La Bravak asteburuan



*Eskozia La Bravakoek bigarrenez antolatuko dute peñen arteko torneoa.*

**Gaur hasi eta domekara arte jokatuko da aipatutako torneo horretako IX. edizioa Eibarren.** Ez da lehen aldia izango, 2011n ere gurean izan zuelako habia. Orduan izandako arrakastak animatu du gure herriko peña ekitaldiak berriro Eibarren antolatzera. Zortzi peña izango dira parte hartzen Ipuruako Anexoan jokatuko den lehiaketan: 1. mailako Eskozia La Brava (Eibar FT) eta Peña Burgalesa (Athletic), 2. mailako Cultural Friends (CyD Leonesa), 2. B mailako Resaca Blanquirroja (U.D. Logroñes), Ezkerraldeak (Barakaldo FT), Leioazaleak (Leioa FT) eta La Kuadrilla (Burgos FT) eta 3. mailako Crianza Rojilla (Calahorra FT).

Gaurko jardunaldian, 20:00etan harrera egingo zaie peñei eta, handik bi ordura, 22:00etan, torneoaren irekiera-afaria egingo dute Casa del Pueblon. Bihar, bestalde, goizeko 10:00etan hasi eta arratsaldeko 18:30ak arte multzoen faseetako partiduak jokatuko dira. Jarraian poteo armagina hasiko da 20:00etan eta, eguna amaitzeko, torneoaren afari ofiziala egingo dute Ipur Sagardotegian. Etzi, domekan, goizak hartuko ditu ekitaldi guztiak: 10:00etan finalerdiak izango dira jokoan, 11:15ean hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira eta, behin eguerdira helduta, 12:30ean torneoaren finala ikusteko aukera izango da. Sariak 13:30ean banatuko dira eta, ordubete geroago, 14:30ean, torneoaren itxierako bazkaria egingo dute Unzaga Plaza hotelean.

## Ipuruako gimnastek 60 dominatik gora irabazi dituzte ikasturtean


*Ipuruako gimnastak Sanjuanetako erakustaldian.*

**Denboraldi handia egin dute federatutako gimnasta guztiek: absolutuek, oinarrikoek, amateurrek eta eskolarrek.** Denboraldia amaitzeko, Nahia Arguizek eta Elene Varelak lehen aldiz hartu zuten parte banakako Espainiako txapelketa absolutuan, hiru aparatuekin egindako ariketan, eta 32. eta 40. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren. Taldekideek, Sanjuanetako erakustaldiaren ondoren, uztailean Ipurua kiroldegian egin den udako kanpusean hartu dute parte, eta eurekin gimnasia erritmikoarekin lehen kontaktua izan duten beste askok. Bestalde, Gimnasiaren Egunean zozketatutako motorra Aritz Bengoa marinarrak irabazi zuen. Hurrengo denboraldiko entrenamenduak irailaren 11n hasiko dira eta matrikula dagoeneko zabalik dago. Informazio gehiagorako, www.ritmicaipurua.com eta gimnasiaipurua@hotmail.com

Funeraria·Ehorztetxe
Mugica
EIBAR
ELGOIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa
Bidebarrieta, 20
24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51
www.funeuskadi.com
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

www.kolorlan.com
667 54 89 16
KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

PUBLI RESA
objeto publicitario
Armagin, 3-5 beheak
merchandising
serigrafia
lanerako erropa
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419

Udaltzainburu karguan 30 urte baino gehiago eman zituen Jose Miguel Calle 2014an jubilatu zenez geroztik, ordura arte udaltzaina izandako Jon Kruzelaegik erreleboa hartu eta, harrezgero, bera da Eibarko udaltzainburua. Oporrak gainean ditugula eta, horren aitzakiarekin elkarrizketa egin diogu, udarako zer gomendatzen digun ez ezik, Udaltzaingoaren martxa nolakoa den bere ahotik entzuteko.




# JON KRUZELAEGI

**(UDALTZAINBURUA):**

## "Pozik handiena norbaiti lagundu diotela ikustean hartzen dut"

*– Uztaila amaitzear dago, nolako uda izatea aurreikusten duzu?*

Badira urte batzuk abuztuan geroz eta jende gehiago geratzen dela Eibarren. Gaur egun ez da lehengo moduan, jende guztiak ez ditu oporrak batera hartzen eta, beraz, herria ez da hutsik geratzen lehen gertatzen zen bezala. Hala ere, egia da beste erritmo batean ibiltzen dela, orohar lasaiago dabil jende guztia. Zabaltzen duten tabernetan terrazan jarrita lasai egoteko tokia egoten da, automobila aparkatzeko burukomin gutxiago, jende eta trafiko gutxiago, estresa ere txikiagoa, denda eta taberna gutxiago zabalik egon arren ez da jenderik pilatzen… Aurten ez dago aparteko lanik egiteko asmorik, baina orain dela urte batzuk, herrian obra "traumatikoren" bat egin behar zenean, beti lagatzen zen abuzturako. Arrazoi nagusia ez zen izaten trafikoa ahalik eta gutxien eragoztea, baizik eta bestela, urtean zehar onartuko ez genituzkeen gauza asko abuztuan kejatzen ibili barik onartu egiten ditugula.

*– Oporretan joan behar direnentzat aholkurik badaukazu?*

Beti esaten ditugunak gogoratzea baino ez: etxetik kanpora egongo ez direla jende guztiari kontatzen ez ibiltzeko, ahal dela etxean balio handiko gauzarik edo dirurik ez lagatzeko, pertsianak erabat itxita ez lagatzeko, ahal dela norbaiti esan buzoia husten joateko, familiako edo konfidantzazko norbaiti giltzak eta kontakturako

## Kanpora joan aurretik kontuan hartu beharrekoak

Oporretan joan aurretik, nahi izanez gero datuak udaltzainei lagatzeko aukera dago. Izan ere, herritarrek emandako datu horiek gordetzeko artxiboa daukate Udaltzaingoan eta, horri esker, edozein larrialdi gertatuz gero interesatuarekin lehenbailehen harremanetan ipini daitezke. Kanpora doanaren datuak eman barik ere, Eibarren geratu den senitartekoren baten zein konfidantzazko norbaiten datuak ere eman daitezke. Horretarako agiria bete eta Udaltzaingoaren bulegoan entregatu daiteke edo, bestela, udaltzaingoa@eibar.eus helbide elektronikora bidali. Bestela ere, hainbat gomendio gogoratzea komeni da: etxetik irten behar duzuenean, atea beti giltzez itxi. Eta oporretan bazoaz edo luzaroan ez bazara etxean egon behar, ez eman horren berri ezezagunei, ez jaitsi pertsianak osorik eta, ahal dela, norbaitek jaso ditzala zure kartak postontzitik, pilatu ez daitezen.



## Bost hilabeteko tartean 150 aktuaziotik gora

Ekainean emandako datuen arabera, herritarrei laguntzeko 150 esku-hartze baino gehiago egin ditu Udaltzaingoak bost hilabeteko tartean, urtarrilaren 1etik ekainaren 7ra bitartean. Askok daukaten irudia bestelakoa izan arren, udaltzainen lanaren alderik nabarmena herritarrei laguntzera bideratutakoa da. Erorikoak, ondoezik sentitzea, galtzea edo desorientatzea, igogailuan edo beste toki batean harrapatuta geratzea, arazoren bat izan duten zaharrei laguntzea… urtarrilaz geroztik horrelako egoerei erantzutera irten dira udaltzainak batez ere. Ohikoenak horrelakoak izan arren, bestelako egoera batzuetan ere parte hartzea tokatzen zaie batzuetan. Datuak ezagutzera eman baino egun batzuk lehenago, adibidez, indarkeria matxista kasu bati aurre egin behar izan zioten: emakume batek Udaltzaingoari ohartarazi zion bikote batek eztabaida bizia zuela eta, deiari erantzutera joan ziren agenteak azkar ibili zirela eta, kalte pertsonal larriak saihestu ahal izan zituzten.

Udalak ekainean argitaratu zituen datuen arabera, 91 erorikotan izan da udaltzaingoa, kalean edo saltokietan erori ziren pertsonei laguntzen. Beste 25 kasutan ere hartu zuten parte, euren etxean bertan jausi zirenei laguntzen.

Horrez gain, ondoezik sentitu ziren lagunak ere atenditu zituzten, 75 kasutan. Desorientatuak zeudenei ere lagundu zieten, 9 aldiz, eta tarteren batean desagertuta egon ziren bederatzi heldu eta lau ume non zeuden argitzen ere lagundu zuten. Horrekin batera, tokiren batean itxita, atera ezinik geratu ziren 5 laguni laguntza eman zieten. Eta, ohiko martxatik kanpora, bestelako egoerak ere izan dituzte: 20 alditan joan behar izan dira igogailuetan harrapatuta zeudenak ateratzera; eta 110 alditan joan dira giltzak etxe barruan ahaztuta, etxera sartu ezinik zeudenei laguntzera. Adineko herritarrei ere lagundu zieten: arazoak zituzten lau zaharri laguntzeaz gain, telealarmarekin lotutako 2 kasutan ere esku hartu zuten.

zenbakiren bat lagatzeko… Nahi izanez gero, guk artxibo batean gordetzen ditugu gurera jotzen duten herritarren datuak, edozein arazo izanez gero lehenbailehen kontaktuan ipintzea errezteko.

*– Zenbat udaltzain zaudete beharrean?*

Eibarko udalean beharrean 43 bat udaltzain gaude gaur egun, urteko 365 egunetan 24 orduz jarduten dugu, herritarren zerbitzura.

*– Azken aldi honetan aurpegi berri asko ikusten dira udaltzainen artean, plantilla asko berritu da?*

Egia da azken urteotan udaltzain berriak hasi direla beharrean, horietako asko, gainera, ez dira Eibarkoak, kanpotik etorritako jendea hartu da beharrerako eta, horietako batzuk, euren etxetik gertuago lanerako tokia aurkitu dutenean, hara joan dira. Udaltzaingoa asko gaztetu da, gu ere bagoaz urteetan aurrera eta, aukera izanez gero, gutariko batzuk laster jubilatuko gara eta, beraz, Udaltzaingoa are gazteagoa izango da.

*– Zure aurretik, Jose Miguel Calle izan zen Eibarko udaltzainburua luzaroan. Zuk bere tokia hartu zenuenetik asko aldatu da zure lana?*

Lana aldatu baino gehiago, karguan nagoenetik beste modu batean ikusten ditut gauza asko. Calle udaltzainburua zenean ondo moldatzen ginen elkarrekin, normalean ez genuen arazorik izaten, baina egia da ez nuela beti ulertzen zergatik jokatzen zuen modu batean eta ez beste batean, edo zergatik egiten zuen gauzaren bat… orduan, horrelakoen aurrean ez nuen beti berarekin bat egiten, baina gaur egun, nagoen tokitik begiratzen hasiz gero, oso argi ikusten ditut horrelako gauzak. Udaltzainburua naizenetik batez ere ikuspegia aldatu zaidala esango nuke. Eta, horrekin batera, sarritan faltan izaten duzu Calle edo besteren bat gainetik ez egotea, azken batean erabaki asko norberak hartu behar izaten ditu eta horrek ardura handia dakar sarritan.




*Gaur egun 43 udaltzain daude Eibarren, horietako asko berriki hasi diren gazteak.*

**“Isunak ipintzeaz haratago, batez ere herritarrei laguntzeko egiten dute lan udaltzainek”**

*– Herritarrek asko joten dute zuengana? Errez etortzen dira bulegora edo deitzen dizuete?*

Bai, jende askok jotzen du guregana eta, gainera, etenbarik. Jendeak edozein zalantza argitzeko deitzen digu, arazo txikiren bat izanez gero berehala ipintzen dira gurekin kontaktuan… herritarrek gertu sentitzen gaituzte eta hori pozgarria da beti. Sarritan, gure lanarekin zuzenean loturarik ez dituzten arazoengatik ere deitzen digu jendeak, baina ahal dugun neurrian, nora deitu behar duten esaten ahalegintzen gara, edo nora jo dezaketen gomendatu. Isunak ipintzen ditugula eta, jendeak bakarrik gure lanaren alde errepresibo hori begiratzen du sarritan, baina hori gure lanaren zati bat baino ez da, eta ez garrantzitsuena, gainera. Beharrean gauden bitartean, batez ere herritarrei laguntzen ibiltzen gara. Gainera, hori da lanak duen alderik politena, niretzat behintzat. Pozik handiena norbaiti lagundu diotela ikustean hartzen dut.

# Abuztuan zinema kalera aterako dute lautan

**Azken lau urteetan ez da udako zine-emanaldirik antolatu,** baina aurten berriz lehengora bueltatzea erabaki dute udaleko Kultura sailekoek eta abuztuan hainbat pelikula kalean ikusteko aukera eskainiko diote herrian geratzen den jendeari. Eguraldia lagun bada, abuztuko lehen lau eguenetan (3an, 10ean, 17an eta 24an) Untzagan, harmailen aldean pantaila ipiniko dute eta pelikula bana emango dute aipatutako egun bakoitzean, 22:30ean hasita. Euria eginez gero, berriz, emanaldiak udaletxe azpiko arkupeetan izango dira. Emanaldiak eskaintzeko ardura Servifilms enpresak izango du eta hauek dira proiektatuko dituzten lau filmak: abuztuaren 3an "Alicia al través del espejo" (Zuz: James Bobin), 10ean "El pregón" (Zuz: Dani de la Orden), 17an "Zootrópolis" (Zuz: Byron Howard, Rich Moore) eta 24an "Mi amigo el dragón" (Zuz: David Lowery).



# Robotika eta bideojokoen bigarren tailerrerako lekua dago oraindik

**Gazterobotika egitasmoaren barruan, 8 eta 16 urte bitarteko gazteentzat tailer bi antolatu ditu udalak Eibarren.** Lehena aste honetan abiatu da, arrakasta handiarekin, eskaintzen ziren toki guztiak bete egin dira eta. Robotika eta bideojokoen inguruko lehen tailer horretan 25 gazte ari dira parte hartzen eta gaur amaituko dituzte saioak. Bigarren tailerra pixka bat aurrerago, abuztuaren 31tik irailaren 5era bitartean egingo da eta horretan izena emateko aukera dago oraindik, taldea osatzeko toki batzuk beteteko daude eta. Interesa izanez gero, izen-ematea zabalik dago www.gazterobotika.eus webgunean (30 euro balio du). 2001. eta 2009. urteen artean jaiotakoei zuzenduta dauden tailer hauetan gazteek euren robotak eraiki eta programatzen dituzte, beti ere taldeko lana sustatuz. Tailerrak euskeraz dira eta arlo honetan aditua den Doplay enpresak ematen ditu. Arduradunen berbetan, *"robotikaren mundua gerturatzeaz gain, bideojokoak sortzen ere irakasten zaie. Teknologiarekin ikasi, jolastu eta ondo pasatzeko aukera dute gazteek"*.






# Emanaldiz betetako uda izango dute Ustekabe txarangakoek

**Uda betea dauka aurretik Ustekabe fanfarreak, aste honetako eguaztenean hasi** eta datorren asteko eguenera bitartean 9 egunetan jarraian emanaldiak eskaintzen ibiliko dira eta. Txaranga orain dela 17 urte sortu zenetik, ez dute horrelako agenda betea izan aurretik. Aste honetan Frantziara joan dira musikariak, Mont de Marsanen ospatzen duten La Madeleine jaia bost egunetan musikarekin girotzeko. Iaz ere han egon ziren eibartarrak eta, antolatzaileak gustora laga zituztenez, aurten berriz joateko gonbidapena egin diete. Aste osoan Frantzian ibili eta gero, domekan Eibarrera itzuliko dira, baina etxean ez dute denbora larregi emango, astelehenean Gorlizera joango dira eta. Martitzen eta eguaztenean ere hango jaietan jardungo dute eta, jarraian, Ermura joango dira, uztailaren 27an ospatuko den "Paella Eguna" musikarekin girotzera.

Atseden bariko egun hauetatik kanpora ere, musikari gazteek martxa onean hasi dute uda: Eibarren Urkiko jaietan eta Sanjuanetan ibili ziren eta herritik kanpora, berriz, Etxarri-Etcharry (Zuberoa), Elgeta, Zarautz, Zumaia, Matiena, Zestoa eta Antzuola girotu dituzte, besteak beste. Eta abuztuaren 4tik 10era Gasteizera joango dira, beste batzuetan egindakoaren bidetik Ama Zuriaren jaietan parte hartzeko. Gaur egun 18 eta 30 urte bitarteko 16 musikarik osatzen dute Ustekabe. Horietatik 11 eibartarrak dira, bi kide Elgoibarkoak dira, beste bi Zestoakoa eta gazteiztar bat ere badago.

# Milaka abentura zure maletan

**Juan San Martin liburutegiko arduradunek ume zein helduak irakurtzera animatu** nahi dituzte: *"Umeak oporretan, eguraldi ona (tarteka behintzat) eta denbora. Urtean zehar horrenbestetan faltan izaten dugun denbora. Horregatik, maletak itxi baino lehen gerturatu liburutegira eta zuen txikiendako ipuin politak aukeratu, abentura zoragarriak eramango dituzue eta. Aukeratzen laguntzeko liburutegiko maletan guk hautatutako liburu batzuk aurkituko dituzue. Beraz, etorri eta hustu gure maleta, abuztuan liburuak kanpoan, oporretan nahi ditugu eta!"*.






# "Gustatzen jata mundura" lehiaketa martxan

**Hainbat eibartarren eskutik sortu den "Gustatzen jata" markak lehiaketa ipini du martxan** Facebook-en, *"markak izan duen harrera ona ikusita, eskerrak emateko asmoz"*. Udara begira abiatu duten "Gustatzen jata mundura" lehiaketan parte hartzeko, munduan zehar "Gustatzen jata" produkturen batekin egindako argazkiak Facebook-era igotzea eskatzen dute, publikazioan "Gustatzen jata" aipatuta. Argazkiak igotzeko epea uztailaren 13an zabaldu zuten eta abuztuaren 31n itxiko da. Egun horretan "atsegin dut" gehien duten 3 argazkiak finalera pasatuko dira eta, behin finalistak publikatuta, Facebook-en bozketa ireki bidez erabakiko da saria nork jasoko duen. Irabazleak "Gustatzen jata" markaren diseinu berriko lehen kamiseta jasoko du *"primizian"*.



# Mugikorrarekin hartutako errealitateak ikusgai

**Uztaila amaiera arte "Different Realities", David Arranz-ek telefono mugikorrarekin egindako argazkiak ikusteko** aukera egongo da El Corte Inglesean, han ikusgai ipini duten erakusketan. Laredon bizi den argazki zaletuak Instagram sare sozialean @arridj kontua zabaldu eta, horren bidez ezagutu duen jendearengandik ikasten joan ahala, arrakasta handia lortu duten irudiak lantzen hasi eta gaur egun 150.000 jarraitzaile izatera ailegatu da. Erakusketan, erretratuekin batera, Arranz-en argazkiekin diseinatutako arropa ere badago. Izan ere, argazkiek duten arrakasta ikusita eta lagun batek animatuta, orain dela gutxi kamiseta eta beste hainbatetan bere argazkiak inprimatzen hasi da.

## Dibujo eta Zeramika eskoletarako matrikula



Irailaren 7ra arte egongo da zabalik Dibujo eta Zeramika Udal Eskolen matrikulazioa. Arduradunek azaldu dutenez, ikasturte berrirako plazak daude talde eta ordutegi guztietan. Interesa duenak Pegoran bete dezake matrikula.

## Umeendako jolasak

Gaur eta hurrengo barixakuan umeentzat jolas "erraldoiak" egingo dira El Corte Ingleseko terrazan, 3. pisuan, 17:30ean. Haurrek minigolfa, 4ko ilara eta slackline modukoetan parte hartzeko aukera izango dute, besteak beste.

## Harixa Emoten talderako izen-ematea

Udal liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean datorren ikasturtean berriz martxan ipiniko dute Harixa Emoten euskarazko irakurle taldea. Izena emateko epea irailaren 1etik 7ra bitartean zabalduko dute eta, interesa duenak, liburutegian (zuzenean hara joanda, telefonoz deituta edo e-maila idatzita) izango du horretarako aukera. Saioak hilean behin egingo dira, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara Portalean.

## Arrateko bertso-afarirako sarrerak

Irailaren 7an, 21:00etan …eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egingo den Arrateko bertso afarirako sarrerak ohiko lekuetan, Kultu, Sagar Bitza eta Kantabria tabernetan salgai daude, 32 eurotan. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Onintza Enbeita eta Maialen Lujanbio bertsolariek jardungo dute Kantabria jatetxean izango den afarian eta gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da.

MUGIKA
HARATEGIA
Urkizu, 18 943120194
Abuztuan ere goizez zabalik
08:30-13:30




Aurtengo Sanjuanetan Marruko kañoia izan dogu jaixetako protagonistetako bat, bai dultzaiñeruei harreria egitterakuan eta baitta helduen eta umien danborradetan be. Lehen be danbatekuak emon zittuan gurian hainbat jaixetan, Dos de Mayo kalekuan esaterako. Gero, legez kanpo eguala eta Gasteizera eruan eta, haren jabia zein zan argi ez eguanez, Guardia Zibillaren kuartelian egon da azken sasoian. Oin Udala dogu Marrukoren jabia. Baiña izan zan beste Marruko bat: **Roman Sarasketa**.



JESUS GUTIERREZ
historialaria

# Marruko, kañoia baiño gehixago

Marruko Eibarko semia izan zan, frantsesak Eibarren sartu ziranian 22 urte izango zittuana. Ez zan mutil garaia, baiña bai konstituziño sendokua eta, aldi berian, azkar mugitzen zana. Frantseseri triskantzarik haundixenetakua Ermura zoian bidian prestatutako zelata-tokixan egin zetsen, Isasiko jauregittik gertu, han bi lagun hartuta 27 etsai hil zittuelako. Lasai zetorren Ermutik soldadu frantsesen zutabe bat: alde batetik, Eibarren guarniziño txikixa laga ebelako herrixa erre ostian eta, bestetik, Ermuan gauza bera egin ebelako. Ibilbidia arriskutik libre espero zeben, konkistatutako lur-eremuaren jabe, eta ez eben halakorik iñola be espero. Marruko eta bere bi lagunak, izkutatuta, zutabiaren aurrekaldia eta erdikaldia pasatzen laga eben eta, azkenak pasatzerakuan, danbatekua eta burrunba haundixa entzun zan... min-oihuak eta maldiziñuak jarraixan. Hiruren armetatik jaurtitako metrallak 27 baja eragin zetsen frantseseri, baiña zutabekuak, ezustetik errekuperatuta, euren fusillak martxan jarri zittuen, mendixan gora ahuntzen moduko jauzixekin ihes zoiazeneri tirua jotzeko asmuarekin. Eta baitta bala batek bat bernan be harrapau. Azken honek laguntzeko eskatu zetsen beste bixeri, baiña Marrukok denporarik ez zeguala ikusi eban, frantsesak metro gitxira zekazela. Soldaduak gizajua harrapatu eben eta beragan hustu eben euren amorrua. Marrukok eta beste lagunak Markiñarantz jo eben eta holan lortu eben frantsesen eskutik ihes egittia, baiña Marrukoren hasarre bizixak ezin lasaitturik hartu eta, hildako lagunaren izenian, mendekua hartuko ebela esan eban.

Baitta Eibarrera bueltau be, inguruko basarrittarrak estimu haundixan zekelako, frantsesengandik ezkutatzeraiño. Halako batian soldaduak Plaza Barrixan eguazela enteratu zan, gure aurreskuaren parodia egitten, mugimendu baldar eta barregarrixekin. Eta bere trabukua metraillaz bete eta "bertara noia!" esan zetsen entzutia gura eben guztieri. Zorua ez izateko eta bueltatzeko esan zetsen bidian aurkittu zittuan basarrittarrak, baiña Marrukok, irribarria ezpaiñetan, lasai antzian beherantz jarraittu eban, burututako planaren arrakastarekin ziur. Baeguan orduan goittik jaitsitta Untzagan, Plaza Barrixaren aurrian, amaitzen zan bide karabilkatsua; eta handik gerturatu zan Marruko, ihes egitteko esaten zetsen basarrittarreri kasurik egin gabe. Hori bai, ez zetsen soldadueri begirik kentzen. Etxetxo txiki batera heldu zanian be bertatik botatzeko animatu zetsen, baiña berak, buruakin ezkerretik eskumara eta eskumatik ezkerrera egiñez, ezetz, kontu haundixarekin behera egiñez. Soldaduak aurreskuaren sokia egitten zeben momentuan aillegau zan Marruko plazara eta, bere kristoren trabukuaren kulatia eskumako izterrian ipinitta, gerra-irrintzixa jaurti eban eta, eztanda haundi baten erdixan, trabukuaren metrailla guztiak soldaduen gorputzetan hartu eban kabia. Aurreskulari hain originalak konturatu ziranerako, Marruko mendixan eguan barriro be. Zazpi baja izan eben frantsesak orduan.

Aratustietan be, kapa ziztrin batekin eta maskara barregarri batekin estalitta, Elgetako plazan azaldu zan eta, dantza barregarri eta originala eskaiñitta, soldadu frantsesen atenziñua bereganatu eban eta baitta euren irri-algarak eragin be. Soldaduak, mesfidantzak ahaztuta, inguratu egin eben, korruan. Behatzaille bat han izan balitz, berehala konturatuko zan basarrittarrak ez zirala gerturatzen; kontrakua, urruntzen ari zirala. Baiña soldaduak, kasualidade horrekin konturatu barik, maskararen aurre-aurrian eguazen, haren pirueteri barrezka. Eta, ezustian, duaneko ikuskizunaren erdixan, kapa azpittik trabuko bat sortu zan eta, maskarak ihes egin zebanerako, beste zazpi gorputz eguazen lurrian, hillotz. Jakiña, orduan be Marruko izan zan maskaraduna.

Halako heroiak, dana dala, askotan ez dabe akabera onik izaten. Hola amaittu zittuan bere egunak be Marrukok, beste "bandolero" askok moduan. Eibar eta Olarreaga arteko errepidian baeguan errota bat eta han lagunak zittuan gure protagonistak eta batzuetan lo egitten eban bertan. Halako batian, berak laguntzat zekan beste batekin afaltzen, azken honek narkotikua bota zetsan ardauan eta, Marruko trabukuari pegauta lo egitten eguala, frantsesak errota inguratu eta etxian sartu ziran. Sei soldaduk, ezin isillago eta bildurrez beteta, oheraiño heldu ziran eta gertu-gertutik euren fusillak martxan jarri eben. Deskargaren eragiñaz, Marrukok jauzixa emon zeban ohian eta, trabukua hartzeko eskua luzatu baeban be, hilda geratu zan. Ondoren, frantsesetako batek haren trabukua hartu eta hildakuaren gorputza birrindu eban. Behin ankerkerixetan hasitta, hillotza etxetik atera eta Eibarrera jaitsi eben. Hurrengo egunian herriko kalietatik herrestan eraman eben eta, amaitzeko, Saturixo deittutako tokixan eguan zuhaitz batetik zintzilikatu. Han egon zan Marrukoren gorputza hainbat egunetan, bateren batek jaisten bazeban bazekixelako zigorra izango ebala. Halanda be, gaba baten haren lagunak jaitsi egin eben eta han bertan lurperatu.



*Marruko kañoia gurekin izan dogu Sanjuanetan.*

## Akebai

Eibarko Euskararen Plan Estrategikoaren plataformak pertsonez osatutako logotipoa osatuz Guinness errekorrean sartzeko egindako ekimena izugarri gustatu zait. Ingelesez "Largest transforming human image" esaten zaio, baina gure herrian "Akebai" izendatu dute.

Izan ere, Eibarren historian zehar, zaila eta, batzuetan, ezinezkoa zirudien erronkaren aurrean hazi eta gainditzeko "Akebai" hori etengabea izan da. Mendiz inguratutako herria dugula eta hiri oparoa sortzea ezinezkoa zirudiela. Akebai. Ezin direla etxeak eraiki, ez bada Ego ibaiaren ertz estuan edo bailaran gora. Akebai. Armagintzak ezin duela nazioarteko merkatuekin lehiatu. Akebai. Armagintza eraldatu egin behar dela produktu berriak sortuz berrasmatzeko, hala nola, bizikletak, josteko makinak, malgukiak… Akebai.

Baina "Akebai" hori ez dago hirigintza eta industriari soilik lotuta, Eibarko bizilagunen espiritu ekintzailearen parte ere bada. Eta adibideak asko dira. Futboleko Lehenengo Mailan talde bat edukitzea ezinezkoa dela. Akebai. Zailtasunen aurrean hiria etengabe berrasmatu behar dela. Akebai. Talde aktibo bati, herritarren laguntzarekin, Guinness-ean agertzeko erronkari aurre egitea bururatzen zaiola. Akebai. Akebai hori eibartarron nortasunaren ezaugarria izan da betidanik, eta horri esker iritsi da Eibar XXI. mendera iragan aipagarri, orainaldi bizi eta etorkizun ilusionagarriarekin.

Amaitu dira 45. Udako ikastaroak eta antolatzaileak gustura daude aurtengo edizioak utzitakoarekin. Partaidetza handia, elkarlanerako bide berriak... 600 izen-emate inguru jaso dituzte eta 100 irakasle inguruk parte hartu dute.

#ElkarEkin izan da aurtengo leloa. Irati Iciar aduradunaren esanetan, *"antolaketarako auzolana ezinbestekoa da, ikastaroen beraien edukia lantzerako orduan. Deialdi orokor bat egiten dugu ikastaroen diseinurako. Hortik aurten 110 proposamen inguru jaso ditugu eta 110 horietatik 35 aukeratu ditugu aurtengo ediziorako. Elkarlana ezinbestekoa da bai arlo akademikoan eta bestelakoetarako ere bai. Azpiegiturak lortzeko ere elkarlana ezinbestekoa izan da. Horrela izan dugu aukera Baionan, adibidez, Iker zentroa erabiltzeko, AEKren Ereintza euskaltegia erabiltzeko, EEPren egoitza. Iruñean NAPI edo Katakrak erabiltzeko aukera izan dugu. Usurbilen Udarregi Ikastola. Donostian Hirikilabs… Hori guztia elkarlan espiritu horrekin. Aipatzekoa baita Markeskua bera ere erabiltzen dugula eta Markeskuako Udako Ikastaroek ere duten indarra azpimarratu eta hori ere Eibarko Udalarekin elkarlanean lortzen dugu"*.

Hurrengo lerroetan aurreko egunetan Markeskuan izandako ikastaro batzuetako arduradunen iritziak, hausnarketak eta ondorioak bildu ditugu. Hona hemen.




## Irati Iciar (Udako ikastaroen arduraduna)

## "Pertsonen arteko elkarrekintza da Udako Ikastaroen ezaugarri nagusia"

## "Erleak ezinbestekoak dira gure elikadura-ereduari eta mundu mailako biodibertsitateari eusteko"" (German Velayos)



Loreen polinizazioa gertatzea ezinbestekoa da gure elikadura-ereduari eusteko, baita mundu mailako biodibertsitateari eusteko ere. Baina polinizazioaren arduradun diren erleak, desagertzen ari dira. Testuinguru horretan antolatu du aurten UEUk "Erlezaintza ikastaroa: egungo egoera eta etorkizuneko erronkak". German Velayos Gainza izan da ikastaroko arduraduna.

***– Ohartzen al gara orokorrean erleen garrantziaz?***

Jakinaren gainean bagaude, baina ez dakit zein puntutaraino ohartzen garen erleen garrantziaz. Berdina gertatzen da eskala handiagoetan; biodibertsitate krisi bat dagoela badakigu, baina ohartzen gara horren ondorio posible guztiez? Ez da lan erraza, ezta ezinezkoa ere. Jarrera kontua da. Arazo bat konpontzen hasiko gara arazoa dagoela onartzeko gai garenean eta horri aurre egiteko neurriak egingarriak direla ohartzean. Ikastaro honen bidez erleen munduan, eta ahal den heinean, Euskal Herrian dauden erle, erlauntza eta erlezainen egoera eta erronketan murgildu nahi izan dugu. Erleen egoera publikoarena berarena egin nahi izan dugu.

***– Desagertzeak zer ekarriko luke?***

Hainbat adierazpen katastrofista egon dira historian zehar. Ezagunena Albert Einsteini egozten zaion hau: *"Gizakia lau urte bitartean desagertuko litzateke erregina hilko balitz. Erle barik ez dago polinizaziorik, belarrik, animaliarik ezta gizonik ere"*. Zilegi da horrelako baieztapena egitea? FAOren arabera 100 laborantza-espezieren ekoizpenak munduan banatzen diren mantenugaien %90 osatzen du. Espezie horietatik 71 erleek polinizatzen dituzte. Europan laborantzek, aldiz, erleenganako dependentzia handiagoa dute; izan ere, ekoizten diren laborantza-espezieen %84 erleen bidez polinizatzen dira.

***– Besteak beste, erleak desagertzeko arrazoien inguruan hitz egin duzue ikastaroan. Zeintzuk dira faktore nagusiak?***

Askotan aldaketa klimatikoari egozten zaio erru guztia, erantzun erraz baten bila. Eta hala da, baina pausu bat urrunago joan gara ikastaro honetan. Erleek gure eremuan egunero aurkitzen dituzten arazoak landu ditugu, nahiz eta beste mordoa egon daitezkeen. Asiako liztorra batetik. Liztor honek, beren beste ahaide hurbilen moduan, beste intsektu batzuk jaten ditu: inurriak, tximeletak, landarezorriak… Zoritxarrez, erleak ere bere menu barruan daude. Barroa akaroa ere hor dago. Erlearen kanpo-parasito bat da, erlearen odolaz elikatzen dena. Gainera, jaioberriei ere eragiten die, malformazioetatik hasi eta heriotzaraino. Kutsadura ere bai. Loreek jaulkitzen dituzten molekula kimikoak erabiltzen dituzte erleek loreak aurkitzeko, guk bidaiatzean GPSa erabiltzen dugun moduan. Aire-kutsadurak molekulen sakabanaketan eragiten du, eta ondorioz, esandako molekula kimikoak aurkitzea zailagoa da erleentzako. Eta, azkenik, pestizidak. Erleak akaba ditzakete, izan ere, erabiltzen diren pestizidek erleen neurona-arteko loturetan eragin eta horien jokabidea eraldatzen dute.

Ikastaroan nahiko helburu hauek jarri ditugu gure helmugatzat: erleen garrantziaz ohartzea, erleen galera eragiten duten faktoreen aurrean zein neurri hartu ezagutzea, erleetatik eratorritako produktuak eta horien onurak ezagutzea; eta erlezain berriak erakartzea.

## "Fisioak azkenean gero eta gehiago lehen arretako profesionalak gara" (Loitzun Izaola Azcona eta Iker Villanueva Ruiz)

Ikasgelako mahaien ordez ohatilez bete zen joan den astean UEUren Eibarko egoitzaren hirugarren solairua. Bertan izan ziren **"Bandera Gorriak eta Froga Neuromuskulueskeletikoak Lehen Arretan"** izeneko ikastaroa. **Loitzun Izaola Azcona eta Iker Villanueva Ruiz** fisioterapeuten azalpenak entzun eta praktikan jartzeko aukera izan zuten.



*– Zer dira bandera gorriak?*

Bandera gorriak pazienteengan sintoma larriak azaltzen dituzten pistak dira. Eta horiek erabiltzen ditugu kontsultara datozen pazienteek arazo larriren bat duten susmatzeko. Guk tratatu ditzakegu edo joan behar direla medikura edo ospitalera esan behar diegu. Fisioak, azkenean, gero eta gehiago lehen arretako profesionalak gara. Hori kontuan eduki behar dugu, askotan zuzenean guregana datozelako. Froga neuromuskulueskeletikoak, bestalde, test antzeko batzuk dira, eta horiei esker jakin dezakegu zein den pazientearen arazoaren jatorria edo zein ehunek egiten dion min.

*– Lehen arretan dauden profesionalek diagnostiko egoki bat egitea oso garrantzitsua dela diozue. Zein da egungo egoera?*

Fisioterapian aldaketa bat sortu da orain dela gutxi. Lehen fisioterapian lanean zeuden gehienak, adibidez, Osakidetzan zeuden, eta fisioarengana heldu baino lehen beste filtro batzuk pasatzen zituzten pazienteek, medikuek ikusten zituztelako. Gaur egun askotan gertatzen da zuzenean fisioarengana datozela eta hor ezinbestekoa da diagnostiko zehatz bat egitea. Alde batetik, tratamendu on bat bideratzeko eta beste alde batetik, patologia larriago bat baztertzeko.

## "Sare-lana etengabeko ikaskuntza eta eraikitze kolektibo bat da" (Assumpta Ayerdi)

**"Elkarlanean indarra: parte-hartzea, inklusioa eta parekidetasuna sare-lanean"** ikastaroa antolatu du EMAUS Fundazioak UEUren Udako Ikastaroen baitan. **Assumpta Ayerdi Olaizola** antolatzaileak dioenez, sare-lana etengabeko ikaskuntza eta eraikitze kolektibo bat da.



*– Egungo gizartea sareen gizarte bat dela diozue.*

Bai, sare sozialak hor daude, eta ematen du dena globalizatuta dagoela. Baino gero banakako eta kolektiboen artean sareak sortzea eta batez ere guk nahi dugun balore eraldatzaileak bertan uztartzea lanketa bat egitea eskatzen du. Hori gainera guztion artean egin behar dugu eta baliabideak jarri behar dira horretarako. Hau da, ez dugu nahi izatea globalizazio, homogeneizazio huts bat zeinetan azkenean guk botere guztia galtzen dugun.

*– Artikulazio horiek kostatzen dira…*

Bai, izan ere, faktore asko daude elkarlan eta sare-lanean kontuan hartzekoak: botere-harremanak, rol desberdinak, erabakiguneak… Helburuak finkatu behar dira, adostu, zerbait esaten dugunean denak berdina ulertzeko… eta inklusio eta ekitatea bezalako irizpideak kontzienteki, hasieratik plangintzan txertatu behar dira. Prozesu hau etengabeko ikaskuntza bezala ulertu behar da.

*– "Elkarlanean indarra" izeneko lana argitaratu duzue Emausetik, zeintzuk dira gako nagusiak?*

Alde batetik, sare-lana etengabeko ikaskuntza eta eraikitze kolektibo bat dela. Ez dago formula bakar bat. Kideak dira subjektu, eta haiek antolatu eta berrikusten dute sare-lan hori. Eta beste aldetik, guk irudikatzen dugun sare-lan horrek izan behar du zaintza, konfiantza eta partaidetzako espazioa.

*– Zer da ikastaroan landu duzuena? Zein helburorekin?*

